

BALEIKE

FRAN AIZPURUA

**"EGINDAKO
LANAK
EMAITZAK
EMAN
DITU"**





TELEBISTEN LIKIDAZIOA

Apirilaren 1etik
stoka agortu arte

-%15



-%10

SALTZEAZ
GAIN,
ARRETA ERE
EMATEN
DUGU



-%20



TIEN 21

www.endañetazumaia.com



BALEIKE 286

2019-APIRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 5 | Aurrena Gorka Zabaleta
<i>Hiru olatu</i> | 26 | Bazkide kluba |
| 6 | Hitz tantak Izaskun Urbieta Esnal
<i>Andoni eta Juan Ramon Larrañaga</i> | 28 | Plazan bazan |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Ivan Rodriguez
<i>Mexikar maskara</i> | 31 | Osasuna Mavi Carceller
<i>Bideo jokoan arriskuak II</i> |
| 10 | Hainbat aburu Leire Barriuso
<i>Astigarraga</i> | 33 | Heziketa Izar Arregi
<i>Aldaketa bakoitza dolu bat da</i> |
| 11 | Errematea Jose Castillo
<i>Beste tragedia greko bat?</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena Asier
Hilario eta José Antonio Arz
<i>Algorri eta dinosauroen
desagerpena: Mexiko eta India
lotzen dituen teoria ikusgarria</i> |
| 12 | Elkarrizketa Juan Luis Romatet
<i>Fran Aizpurua: "Hor egongo naiz
laguntzen, izkina batean banderatxo
batekin bada ere"</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Kanoiak, danbatekoen oihartzunak</i> |
| 16 | Erreportajea Maria Maya
Manterola
<i>Herritarrekin, arazoei aurre hartzera</i> | 42 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>Zukanen lehen kapitulua</i> |
| 20 | Publierreportajea Zumaiaiko
Institutua | 43 | Agenda |
| 22 | Erretratua Julen Aperribai
<i>Olatz Goiburu, ertzak koloreztatuz</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Hiru galdera</i> |
| | | 45 | Nire txanda Goiz Eder Iturain
<i>Hautsak astintzen</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Memoriaren plegu batean</i> |

BALEIKE

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Juan Luis Romatet
kattan@baleike.eus
Erredaktore taldea
Izaskun Urbieta

Maria Maya Manterola
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna
Felix Aizpurua

publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna

Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izotzuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943-86 23 09



diseinua inprimatzea

Alai 8, 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 ■ fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t g

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943-86 21 52

SAVALERO



AIZPURUA LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69



AL-ANON

Alkoholikoen senide eta lagunen elkartera
Tel. 650 26 59 63

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 72 61 88
943-14 32 61



Amama taberna

tel.: 943-54 31 64
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4, Zumaia (Gipuzkoa)


Ardantzabide ALTZARIAK-AROTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943-06 25 32

Arotzategia: Santiago, 40
Tel.: 943-86 16 31

f



OKANDEGA Arkipe

Nagusia, 2 • tel. 943-86 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI ARROPA BENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943-54 34 06
20760 ZUMAIA (GIPUZKOA)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 - Tel. 943-50 91 69

BOSCH Service Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com
Txomin Agirre 4, behea tel. 615 79 34 06 / 943-86 26 51
elena@ricardoazkue.com fax: 943-86 27 48



943-86 02 75
697 81 24 92
batzokizumaia@gmail.com
Eusebio Gurrutxaga plaza, 6
Zumaia (Gipuzkoa)

bai bidea

Taberna · Jatetxea
Bar · Restaurante

f t g
tripadvisor



Finas, frantses, euskara, erdaraz, espainiar, katalan, katalan, suomi, basq, catala, irlandesa, frantses, angles, catalan, frantses, katalan, frantses, irlandesa, ingeles, basq, catalan

Bakur

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943-14 83 06
bakur@euskalnet.net



Basodi albaitaritzak

filbaitaria
Maki Garmendia

Basodi, 7, behea - tel. 943-14 33 10
vetermaria@basadiclinivet.com
www.basadiclinivet.com

Goizez: 11-13 / Arratsaldez: 16-18:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itxia
Larriak: 605 72 87 07 Etxez ebokoz zerbitzua



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943-86 17 00

Hiru olatu



GORKA ZABALETA

Getariatik Zarautzera paseatzen, kostaldeko bulebarrean. Uda giro, neguaren hondarrean; manga motzaren tentazioari amore emanda goaz, bizi-bizi. Ezkerrean, kotxeen joan-etorri etengabearen burrunba; eskuinean, itsasoko baga garbien ikuskizuna. Iritsi gara Beobidek euskal arrantzaleei eskainitako eskulturaren parera: baporerik ez da bistan, baina zeruertzean du begirada iltzatuta Bixente Tximo-k; *Grande America*-ren galipota sumatu du, akaso. "Euskal Herrian klima aldaketa gertatzen ari da", bota du patinete gainean atzera eta aurrera dabilen bederatzi urteko semeak. Harri eta zur utzi nau, ustez gogoan Zarautzen jango duen izozkia baino ez duen horrek. "Eta zer da klima aldaketa?", galdetu diot, hari muturrak soka luzeagorik ba ote duen jakin nahian. "Itsasora ez dela plastikorik bota behar eta kotxea gutxiago erabili behar dela". To. Hortxe daukak puntua, aita.

Ez dakit zehazki zenbat urte izango nituen, 12 edo 13 akaso, baina oso gogoan daukat komiki hark nola harrapatu ninduen erabat. *A mi madre la mar* zuen izenburua, Greenpeacek argitaratua. Grabatuta gelditu zaizkit liburu hartako irudi gordinak. Balea eta itsas-txakurren sarraskiak, itsaso eta airearen kutsadura eta arrisku nuklearra ziren gai zentralak. Telebistan tarteka ikusten genituen *Rainbow Warrior* ontziko aktibista haiek gomazko lantxetan baleontziei oldartzen. Heroi bihurtu ziren gutako askorentzat. Ingurumena zaindu beharraren nolabaiteko kontzientzia piztu ziguten; gero, gehienok behar baino gutxiago egin dugu gure etxe inguruan natura defenditzeko beharra izan denean.

Baina badator olatualdi berri bat. Hamabost urteko ikasle suediar Greta Thunbergekin ostiralero greba egitea erabaki zuen iaz, klima aldaketa salatzeke. Gaztaroko egoskorakeria baino ez zela pentsatu zuten orduan gurasoek, irakasleek eta lagun gehienek, baina Europako gazteak kalera atera dituen mugimendu bilakatu da Gretaren ekina hilabete gutxiren buruan. Eta iritsi da Euskal Herrira ere. Azken urteotan pentsio duinen aldeko aldarriaren eta borroka feministaren agertoki mediatiko bihurtu den Bilboko udaletxe aurreko plazan ikusi ditugu gazteak Oteizaren arrautz itxurako eskulturaren bueltan elkartuta, haiek ere, jubilatua eta emakumeak bezala, justizia soziala eta etorkizun duina erreklamatzeko, finean. Taupada bereko hiru olatu. Denok aintzat hartuko gaituen mundu berri bat, edo akabo.

Oinetakoak erantzi eta hankak busti ditugu Zarauzko hondartzara iritsi orduko. Eguzkitan eseri gara gero, izozki bana eskuan hartuta. Kafe zaporeko krema miazkatzen dudan galdera etorri zait burura: zer leku izango ote duten hiru olatuek gainean dauzkagun hauteskunde kanpainenetan. Jan dezadan izozkia, urtu baino lehen. ■■■

**DENOK AINTZAT
HARTUKO GAITUEN
MUNDU BERRI BAT, EDO
AKABO**

Andoni eta Juan Ramon Larrañaga

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Ikusitakoa ikasten omen da, eta esaera horri jarraituz, umetatik arrantzan egiteko zaletasunari heldu zioten Larrañaga anaiek. Familiatik datorkie itsasoarekiko maitasuna, eta senitarteko batzuek arrantza ogibidetzat ere izan zuten. Andoni eta Juan Ramon ez dira hain urrutira iritsi, baina ahal duten guztietan ateratzen dira itsasora.

Noiztik duzue arrantzarako afizioa?

J.R.: Umetatik daukagu. Aitona eta osabak arrantzaleak izan ziren, eta haiekin hasi ginen arrantza mundua ezagutzen.

A.: Itsasora joateko egarriz bizi ginen. Gutxienez igerian jakin arte ez ziguten utzi joaten, eta arrantzara irteten zirenean, enbidia pasatzen genuen. Moila muturrera arte joaten ginen nola itsasoratzen ziren ikustera, eta itzulera ikusteko Arranplan egoten ginen zain.

Nola gogoratu dituzue itsasoko lehen irteerak?

A.: Lehen bidaiak aitonarekin egiten genituen, Itzurun hondartza parera arte. Udaran ateratzen ginen, baina aurretik prestaketa lanak egin behar izaten genituen: txalupa margotu, konponketa lanak egin... Erramu egunean, bedeinkatutako erramua jartzen genuen txalupan, hori zen ohitura. Aitonak berak azkenean bota egiten zuen, lehor-lehor eginda.

Ordurako jabetuko zineten afizio gogorra zela, ezta?

J.R.: Bai horixe! Gainera, hasierako irteeretan mareatu eta guzti egiten nintzen. Hiru egun gaixotuta pasatzen nituen, kalentura eta guzti.

A.: Moila muturrera edo Inpernupera joaten zen anaia itsasoa nola zegoen ikustera eta mugituta ikusten bazuen etxean gelditzen zen. Halako batean ohitu eta beldurra kendu zitzaion.

Hiru txalupa dituzue.

A.: Garai batean egurrezko bat ere bagenuen, *Arritokieta*. Anaia zaharra egurrarekin lanean ona zen eta saiatzen zen mantentze lanak egiten, baina azkenean kendu egin genuen. 1942. urteko txalupa da eta gordeta daukagu. Orain poliesterrezkoak ditugu: txibitarako bi eta hegaluzetara joateko handiago bat.

Noraino joaten zarete, adibidez, hegaluzea harrapatzera?

J.R.: Gertu dagoela entzuten dugunean joaten gara. Bizpahiru ordu joaten eta beste horrenbeste bueltan.

Sustorik izan duzue inoiz?

A.: Bai. Mila gauza gerta daitezke itsasoan, eta guri, zorionez, ez zaigu ezer larririk gertatu.

J.R.: Orain aurrerapen handia dago teknologian eta itsas salbamenduak ere hiru ordutik behin abisuak ematen ditu irratitik. Ezustekoak gertatu ahal dira, baina itsaso edo eguraldi txarrak harrapatzen bazaitu, ardura gabe jokatu duzulako izango da.

Zer egiten duzue harrapatutako arrainarekin?

A.: Etxerako izaten da, lagunenean eta familia artean banatzeko. Askoz gehiagorako ere ez du ematen. Azkenean, lehorrean lan egiten dugu, eta asteburuetan irteten gara.

Pentsatu al duzue inoiz arrantzale profesionalak izatea?

J.R.: Pentsatu eta gustatu bai, baina ikusten dut hor ibiltzen direnak ere uzten ari direla. Pasaian egin nituen horretarako ikasketak, baina lanbide gogorra izateaz gain, etorkizun zailekoa da.

Arrantzan afizio moduan ibiltzen diren pertsonen kopurua ere jaitsi egin da?

J.R.: Bai. Afizio garestia da, eta, adibidez, lanik gabe gelditzen bazara, hau da kentzen duzun lehenengo gauza. Gazte jende berria ere gutxi hasten da.

A.: Arbustain Motor Elkarteak, esaterako, bazkide kopurua ere jaitsi egin da.

Santelmoak ate joka ditugu. Nola bizi dituzue festak?

J.R.: Arbustaingo sortzaileek jarri zuten banderaren igoeran arrantzale ohi bat omentzeko ohitura, baita arrantzale zaharrei hamaiketako ematekoa ere. Festei itsas kutsua emateko hasi ziren, eta garrantzitsua iruditzen zaigu usadio hori mantentzea. Bestela, zer izango dira santelmoak?

A.: Banderaren igoeraren momentua tentsioz bizi dugu. Ongi irtetea nahi dugu, bandera igo behar duen pertsonak ongi pasatzea... Festetako momentu berezia da eta urduritasunak egoten dira. Hamaiketako lasaia izaten da, eta arrantzale zaharrek pozik hartzen dute gonbidapena. ■■■




Mexikar maskara


ARGAZKIA ETA TESTUA: IVAN RODRIGUEZ

Argazki hau Lightpainting teknikarekin dago egin. Ez dauka inongo ediziorik. Mexikar maskara baten aurretik zuntz optikoa pasa diot. Hiru kolore desberdinetan. Ondoren, maskararen atzetik led makil batekin goitik behera eta eskuinetik ezkerrera pasa dut.

Martxoaren 8 eta 9an Valentzian FestiFoto 2019 Light Painting batzarra egin da eta Estatuko lightpainters onenekin erakusketa bat antolatu da bertan. Argazkia erakusketa horretan parte hartzeko aukeratu dute. ■■■

Datu teknikoak: Canon EOS 7D; f18; 30 seg.; ISO: 100.







LEIRE BARRIUSO ASTIGARRAGA, EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEKO KUDEATZAILEA

Lortu dugu! Txartel berdea

2018ko uztailean Unescoko bi aditu etorri ziren gure Geoparkearen ebaluazioa egitera. Hiru egun eman genituen bazter guztiak erakusten, azken lau urteetan egindako lorpenak azaltzen eta bidelagun ditugun entitate eta kide guztiak aurkezten. Urte erdi geroago, emaitza ofiziala da: 2022ra arte eutsiko diogu UNESCOren munduko Geoparke izendapenari!

Unescok aldarrikatzen dituen balioak, zientzia, hezkuntza eta kultura dira, hain zuzen ere, Geoparkearen estrategiaren zutabe nagusiak. Horregatik da hain garrantzitsua guretzat UNESCOren Munduko Geoparke izaten jarraitzea.

Zortzi urte igaro dira Munduko Geoparkeen Sarearekin bat egin genuenetik. Orduetik hona, Europan dauden

Geoparkeen kopurua bikoiztu egin da. Gero eta zorrotzagoak dira kide izateko baldintzak eta ebaluazio prozedura horren ondorioz badira Sarea utzi behar izan dutenak ere.

Gurea, berriz, urteak joan ahala gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, bai estatu mailan, baita nazioartean. Erreferente bihurtu gara hainbait arlotan, kudeaketa ereduan, geokontserbazioan, geoturismoan..., eta Hego Ameriketara bor-bor dauden geoparke proiektu eta hautagaitza asko gure ispiluan begiratzen dira.

Urte gutxian bilakaera nabarmena izan dute geoparkeek, zalantzarik gabe. 2000. urtean lau lurraldek ekin zioten ondare geologikoan oinarritutako lankidetzara

proiektu bati, eta, ohikoa ez bada ere, proiektua eta finantziazioa bukatuta, hautagaitza berriek sarearekin bat egiteko eskaera egin zuten, lehendabizi Europan eta Asian ondoren, gaur egungo 140 lurralderen arteko sarea osatu arte.

2015. urtea mugarri izan zen, UNESCOk Geoparkeen programa onartu baitzuen. 70eko hamarkadatik UNESCO programa berririk onartu gabe zegoen. Biosferaren Erreserba izan zen azkena. Gaur egun, Euskal Kostaldeko Unescoren Munduko Geoparkea, Urdaibaiko Biosfera Erreserba edo Gizateriaren Ondare izendatutako edozein elementuren parekoa da.

Lau urte ditugu aurretik erronka berriei heltzeko. Luze badirudi ere, jakin badakigu

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



JOSE CASTILLO

Beste tragedia greko bat?

Hiru hauteskunde jarraian, kanpaina elektoralean zirkua gurean dugu. Baina, oraingoan, antzerki honek tragedia grekotik antz gehiago izango duelakoan nago. Grezian ere hauteskundeak dituzte aurten. Bertan, orain lau urte ezker erradikaleko Syriza alderdia iritsi zen gobernura, emaitza: eskuineko ezen gobernuak egingo lituzkeen murrizketaz eta erreforma kapitalistaz beteriko legegintzaldia.

Gurean, PSOeren ezkerrean kokatzen diren alderdi instituzional guztiek dakite Greziakoa eta estrategia berarekin jarraitzen dute. Estrategia eraldatzaile erreal baten faltan, Vox gobernura irits daitekeela eta, boto antifaxista eraginkorra eskatzen dute. Ados, faxismoari ez zaio lekuri utzi behar. Baina mundua eraldatzea posible dela sinisten dugunok aztertu beharko genuke erakundeetan ematen den botere erlazioa. Zein da alderdi ezkertiar batek Europar Parlamentuan, non Europar Batasuneko erabaki nagusiak inola ez diren hartzen, eragiteko duen ahalmen erreal?

Ez, hau ez da abstentzio aktiborako deia, bakoitzak egin beza nahi duena bere botoarekin, bai hausnarketa aktiborako deia: parlamentuetan ez bada, non dago boterea? ■■■

konturatu orduko epea gainean izango dugula, eta ezin dugu lo hartu. Lan egiteko modu honek beti aktibo mantentzen zaitu, proiektu berriak martxan ipini, abian daudenak erroto eta aliantza berriak topatzen emango ditugu datozen urteak.


2022an UNESCOk berriro ere bidaliko ditu gurera bi ebaluatzaile etxeko lanak egin ditugun ikustera. Gai potoloak ditugu esku artean, besteak beste, Geoparkeko barnealdearen garapena. Kostaldean ez ezik, barnealdean ere dinamikak sustatu nahi ditugu, ikerketa proiektuen bidez ezagutza areagotu, produktu berriak sortu, ekintzailatza bultzatu... bertako biztanleentzat zein bisitariarentzat.

Ondarearen interpretaziorako azpiegituren hobekuntza ere

premia bat da. Eskuduntza zuzena ez daukagunean, beste administrazio batzuei lagundu, bultzatu edo zubi lanak eginez. Dibulgazioa da Geoparkearen nortasunaren ezaugarri nagusietako bat eta mezu horiek zabaltzeko baldintzarik onenak behar ditugu.

Datozen urteetan herritarren parte hartzea izango da proiektua errotzeko giltza. Herritarrak dira Geoparkearen benetako protagonistak eta eragileak; herritarren konpromisorik gabe herren geundeke.

Nazio Batuen Garapen Iraunkorrerako Helburuei lotuta dago Geoparkearen estrategia eta marko hau izango da, hain zuzen ere, Geoparkearen ekimenak zuzenduko dituen agenda hurrengo urteetan. ■■■



"Hor egongo naiz laguntzen, izkina batean banderatxo batekin bada ere"

FRAN AIZPURUA ERRETIROA HARTUKO DUEN KIROL TEKNIKARIA

Apirilaren hasieran hartuko du erretiroa Fran Aizpuruak. 35 urtez kirol teknikaria izana, kirol aldetik Zumaia bizitako bilakaeraren eta hazkundearen lekukoa izan da. Horren guztiaren inguruan hizketan aritu da.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Bera izan da Udalaren aurpegia kirol munduan 1980ko hamarkadik hona. Kirol zinegotziak etorri eta joan egin dira, baita kirolariak ere; Franek hor jarraitu du. Orain arte. 62 urterekin, 63 egiteko, Franek erretiroa hartuko du. Arrazoi ezin hobea mahai baten

bueltan eseri eta bere ibilbidearen eta, bide batez, Zumaia kirolaren inguruan hitz egiteko.

Kirol teknikaria izan zara hiru hamarkada luzez. Nola hasi zinen lan honetan?

1984ko ekainean egin nituen oposaketak.

Kiroldegia urte horretan bertan egin zuten, eta ekainean kudeatzaile postua atera zuten.

Kiroldegia kudeatu behar nuen, eta, teknikari bezala, herriko kirola sustatu ere bai. Hala hasi ginen kirol jarduerak antolatzen Zumaian. Garai hartan ez zegoen kirol jarduera handirik. Futbola zegoen, arrauna, eskubaloia, pilota, piraguismoa eta askoz gehiago ez.

1984. urte hartan, zer egoeratan zegoen Zumaia kirola?

Ekipamendu aldetik, hartxintzarreko futbol zelaia zegoen, hemen, Aita Marin, eta gero kiroldegia eta Odieta frontoia zeuden. Itsas kiroldegia geroago egin zen. Ez zegoen ekipamendu gehiago. Arraun elkarrekin, garai hartan, Amaia plaza zuen lokala. Pulpoko taldeek orain Zumaia den ikastetxean jokatzeko zuten. Piraguietek moilan zegoen ikatz biltegi batean ibiltzen ziren. Handik Moilaberrian zegoen beste biltegi batera mugitu ziren. Txirrindularitza aldetik ere zerbait egiten

zen, baina gauza gutxi. Orain, egia da, klub asko dago, kirol mota desberdinak daude, eta ekipamendu aldetik osatuago dago. Hainbeste klub egonda, ekipamendu aldetik nahiko justu gabilta. Baina aurreko garai harekin konparatuta, ez dauka zerikusirik.

Herriko kirola sustatzea zen zure lanetako bat.

Bai, hala hasi ginen jarduerak antolatzen: krosak, areto futbola, futbol 7a... Gauza desberdin ugari egin dira: biko lasterketa, Artadiko igoera bizikletan, txakur lasterketa... Kirola sustatzeko modu bat izan da, eta horrek kirol elkarte gehiago izatea ekarri du. Kate moduko bat izan da.

Hemen zorte handia izan dut boluntarioekin. Krosa antolatu behar genuenean aurretik korrika aritutako jendearekin edota kuadrillekin hitz egiten genuen, boluntarioak aurkitu eta lasterketa egiteko. Hala hasi ginen gauzak egiten. Baina beti boluntarioen laguntzarekin. Zerbait antolatu nahi denean gauza bat garbi izan behar da: jendea behar dela lanerako. Bestela ezinezkoa litzateke 35 urte hauetan egindakoaren laurdena egitea ere. Adibidez, 350 lagun behar dira Flysch Trailerako. Horiek gabe ezingo litzateke egin. Eta Flysch Trailarekin bezala, krosarekin, txirrindularitza probekin, denarekin.

Aurrez aipatu dituzun probetako batzuk bide ertzean geratu dira. Agian kirol jarduera gehiegi ere badugu herrian?

Gauzak aldatu egiten dira, modengatik edo beste kontu batzuegatik. Gaur egun ikusten da jendea denerako dagoela. Orain mendi lasterketak daude





Boluntarioek ere bere esker ona adierazi zioten Fran Aizpuruari.

modan, eta lehen krosak egon ziren. Zerikusia ere badu elkarteekin. Denetik dugu hemen, uretako kirolak eta lehorrekoak. Judoa dugu, eta orain xakea ere bai. Talde edo elkarte horiek sortzen direnean, jarduerak antolatzen dituzte beraien kirola bultzatzeko. Horiek ere gehitzen joaten dira, eta herria txikia da.

Kirol proba bat dagoenean batetik bestera bueltaka ikusten zaitugu. Ikusten ez dena bulegoko lan grisa da.

Barruko lana. Kirol proba horiek egiteko aurretik baimen guztiak lortu behar dira, trafikoa dela, federazioak direla, ambulantiak... Gero, erabaki behar da logistika nola antolatu nahi den, eta boluntarioekin hitz egin behar da. Eta azkenean egunean bertan hori dena aurrera eraman behar da. Lan hori ez da egun bakarreakoa. Proba batzuek bi edo hiru hilabeteko aurrelana eskatzen dute, eta Flysch Trailaren kasuan, urtebetekoa. Horrek ez du etenik.

Zenbat opor garaitan izan zara lanean?

Kanpora joatean atsedean hartzen duzu, baina, oporretan, Zumaian geratzen bazara... Jendeak kalean gelditzen zaitu, hau antolatu behar dutela, beste hau behar dutela; nik ez dakit ezetz esaten, eta lagundu egiten diezu. Etxean ohituta egon dira. Hasieratik bazekiten zer zegoen eta nola ibiltzen nintzen bilerekin eta. Gero, asteburuetan antolatzen dira kirol ekitaldiak, eta lotuta zaude. Zorionez, emazteak eta familiak onartu dute.

35 urte aritu zara teknikari lanetan. Zumaia kirol aldetik bizi izan duen hazkunde nola ikusi duzu?

Hazkunde handiena izan zen kiroldegia berri zenean eta igerilekua egin zenean, 1999an.

Igerilekuarekin eta gimnasio berriekin halako boom bat izan zen. Urtebeteko epean laukoiztu egin zen bazkide kopurua: 600dik 2.200era igo zen.

Gimnasio berriekin jarduera gehiago sortu ziren: mantentze gimnasia, zumba, aerobika... Horrek guztiak jendea kiroldegira ekarri du.

Lehen modak aipatzen zenituen. Kirol eskaintzan ere izango dute modek eragina.

Une batean arrakasta duten kirol batzuk handik urte batzuetara alde batera uzten dira, eta berriak sortzen dira. Gaur egun hori gertatzen da kirol batzuekin, adibidez,

crossfit edo cyclingarekin.

Igerilekuan ere ikusten da. Igerilekua egin zenetik 20 urte igaro dira, eta denbora honetan jendeak igeri egiten ikasi du, eta zeharkaldietarako eta beste probetarako prestatzen da. Hasieran jende gutxi ibiltzen zen, igerilekua nahiko lasai egoten zen; momentu honetan jende asko dabil. Eta igerilekuaz diodana, goiko gimnasioez ere esan daiteke: pesak eta muskulazioa egiten egoten den jendearekin une batzuetan beteta egoten da.

Agian txiki geratu dira instalazio hauek?

Gertatzen dena da denok ordutegi berean joaten garela. Lanetik ateratzen direnean dute askok igerilekuan aritzeko aukera. Justu samar gabiltza, zailtasunekin, baina oraindik moldatzen gara ekipamendu hauekin.

Kirol elkarteen hazkunde ere izan da. Egun 18 klub daude Zumaian. Halako mugimendurik aurreikusten al zenuen?

Kostako herri bat izanda, ikusten duzu uretako kirolek garrantzia izango dutela. Hasieran arrauna eta piraguismoa zeuden. Gero etorri dira urpekaritza, eta surfa eta bodyboarda, bere modalitate guztiekin. Kirol portua inauguratu zutenean Nautika Santixo eta belakoak ere hor hasi ziren. Lehorrekoan ikusten da futbolak eta eskubaloiak gorakada handia izan dutela, eta frontoi berriarekin pilota ere gorantz doa. Nik uste dut elkarte guztiak doazela gorantz. Ikusten dut denek dutela mugimendua eta ari direla gauzak egiten.

Elkarteen artean beti egon dira halako liskarrak. Zezen horiek toreatzea ere tokatuko zitzaizun.

Beti egoten dira halako liskar txikiak, baina azkenean derrigorrez konpondu behar dira. Tartean harrapatu gaituenean saiatu gara beti gauzak lasaitzen. Zerikusi handia du klubetako zuzendaritzetan dagoen jendeak. Horren arabera, batzuetan gauzak konpontzea errazagoa izaten da besteetan baino.

Zumaiako kirolaren urrezko aroa bizi izan duzu. Arraunean, pilotan, piraguismoan, surfean eta bodyboardean, kirol askotan. Pozgarria izango da zuretzat...

Kirol elkarteek lana ondo egiten dutela erakusten du horrek. Ia kirol guztietan izan da zerbait: arraunean Kontxako banderekin, futbolekin 3. mailara igo zirenekoa –orain, gainera, jokalaririk bat dago lehen mailan–, Iñaki Osa Goikoetxea zesta puntan, Kauldi Odriozola eta Ander Torriko eskubaloian, txirrindularitzan ikusten da gazte jendea ari dela ateratzen, Imanol Yeregi surfean eta Alex Uranga bodyboardean, Iñigo Peña olinpikoa izan da... Ikusten da ia kirol guztietan ari dela jendea ateratzen. Hori ez da herri guztietan gertatzen. Hain herri txikian hainbeste kirolari ateratzea, eta hain kirol desberdinetan, pozgarria da.

Emakumeak ere ari dira bere lekua hartzen kirolean ere.

Emakumeak kirolean aritzeko lanean aritu gara. Krosean horregatik jarri genuen distantzia erdiko lasterketa, 10 kilometrokoa gehitxo bazuten, 5 kilometrokoa aritzeko. Dirulaguntzetan ere, orain urte batzuk, elkarteek puntu gehiago jasotzen zituzten emakumezkoen partaidetzarekin. Ikusi da eragin handia izan duela kirol guztietan. Kirol elkarte guztiek dute orain emakume kopuru handia; batzuetan ia % 50ekoa. Gero, emaitzak ere onak izan dira. Triatloian, arraunean... Emaitzak ez dira hainbeste begiratu behar, baina parte hartzearekin batera emaitzak ere etortzen badira, hobeto. Baina ez da izan elkarten ardura bakarrik; gizartea ere aldatu da, eta emakumeek gero eta gehiago hartzen dute parte kirolean.

Hiru hamarkada hauetatik, zerekin geratzen zara?

Hasi nintzenean nahiko kezkatuta nengoen, ardura handia zelako. Bat-batean kirol munduan



Udalak eta elkarteek omendu zuten Fran Herri Krosaren atarian.

zaude lanean, instalazio bat kudeatu behar duzu, zerotik hasten zara lanean, eta zure lanen artean kirola sustatu behar duzu. Hori nola egiten da? Gero, ikustea aurrera doala eta gero eta elkarte gehiago, gero eta kirol gehiago, gero eta bazkide gehiago dagoela, horrekin geratuko nintzateke. Nola hasi ginen eta gaur egun Zumaiako kirola nola dagoen. Egindako lanak emaitzak eman ditu.

Une txarrak ere biziko zenituen.

Beti zaude gauzak antolatzen, eta urduritasuneko momentuak hor daude. Gauzak ondo egin nahi dituzu, eta batzuetan norbaitekin haserretzen zara. Edo beste batzuetan ezin diozu behar bezala erantzun eskaera bati. Baina, beno, une txarrak egongo ziren, baina 35 urte hauetan egindako lanean une onak askoz gehiago izan dira.

Herri krosean omenaldia jaso zenuen. Udalak eta herriko klubek, guztiek, omendu zintuzten.

Banekien zerbait egitekoak zirela. Pentsatzen nuen betikoa izango zela, hau da, plaka txiki bat emango zidatela. Ez nuen gehiago espero, eta horrekin gustura geratuko nintzen. Gero ikusi nuen elkarte denak han zeudela..., eta bai, polita izan zen. Eskertzekoa da, eta seinale gauza batzuk ondo egin ditugula.

Familia ere han zenuen.

Bai, nik ez nekien ezer, baina beraiek bai!

Apirilaren 9an erretiratzeko zara. Baina, zu ezagututa, ez dut uste geldirik egongo zarenik.

Orain beste aldera pasako naiz, boluntario moduan. Horrenbeste urtez boluntarioak lanean jarri ondoren, orain ni ez egotea laguntzen, pixka bat egoista izango litzateke nire aldetik. Hor egongo naiz laguntzen, izkina batean banderatxo batekin bada ere. Gero, nire ordezkari egongo denak nire laguntza edo aholkua beharko badu, hor izango nau, zalantzarik gabe. ■■■

Herritarrekin, arazoei aurre hartzera

Herritarren arteko harremanak, kohesioa, bizi kalitatea eta bizikidetzaren alde lanean, hainbat urtetako ibilbidea egin du Prebentzio Mahaia. Haur, nerabe eta familiako kideekin lan egiten duten erakunde esanguratsuak biltzen dituen sarea da gaur egun. Orain arte egindako lana kaleratzeko ordua dela uste dute taldekideek, eta datozen hilabeteetan mahaia ezagutarazteko ekintzak egingo dituzte.

Testua eta argazkiak: **Maria
Maya Manterola.**

Bakoitzak dituen ezagutzetatik abiatu eta adituak diren esparruak kontuan hartuta, denei eragiten dieten kezkei erantzuna ematea da Prebentzio Mahaiaaren helburu nagusia. Ibilbidean asko izan dira mahaia ezagutu eta batu direnak. Gaur egun, adin tarte guztien iritzi eta kezkek jasotze aldera, hauek osatzen dute taldea: Ongizate saila, Hezkuntza saila, Kultura saila, Turismo, merkataritza eta ostalaritza saila, Berdintasun saila, Kirol teknikaria, Ludoteka, Gaztelekua, udaltzainburua, ikastetxeetako ordezkariak, sendagilea eta politikariak.

Prebentzio Mahaiko taldekide kopurua dela eta, eta landu beharreko gaiak sakontasun handiagoa behar zutela ikusirik, funtzioen eta helburuen inguruko hausnarketa prozesua abiatu zuten duela hiru urte. Bi multzo bereizi zituzten: osasuna eta bizikidetzeta. Hala ere, urtean behin elkartzen dira Prebentzio Mahaiko kide guztiak.

Beste funtzioetako batzuk hauek dira: herritarren eskura dauden zerbitzu, baliabide, sistema eta eragileen lana eta esku hartzea norabide berean joan eta herritarren kohesioa, harremanak, bizikidetzeta, osasuna eta bizi kalitatea hobetzea.

Haur eta nerabeei zuzenduta, askotariko gaiak landu dituzte urteotan: sexu heziketa eta hezkidetzeta programa, guraso eskola, haur eta nerabeen babeserako prestakuntza saioak, lanbide hastapeneko tailerrak ezagutzea, higienezaren eta elikaduraren inguruko lanketa, Gaztedia Saitetik egindako gazte lokalen inguruko



Zumaiako Prebentzio Mahaiko kideak.

azterketa proposamena, bide heziketa... Ekimen horiek guztiak aurrera eramán ahal izateko, ordea, Prebentzio Mahaiko taldekide guztien inplikazioa eta koordinazioa beharrezkotzat jo dute.

Egiten duten lana eta mahaiaren jarduna kalera ateratzen jarriko dituzte indarrak taldekideek. Arlo ezberdinetatik herritarren ohiturak eta joerak aztertu ondoren, kezka komunak identifikatu dituzte. Horietako bat izan da alkoholaren kontsumoarena: datozen hilabeteetan, alkoholaren kontsumoarekin lotutako kezkak biltzea izango da helburua. Galdetegi bat prestatu dute Agipadekin elkarlanean, eta gainerako kideekin kontrastatu ondoren zabalduko dute. Herritarrek alkoholaren kontsumoaren inguruan dituzten iritzia, kezkak eta joerak jaso nahi dituzte galdetegi horren bitartez. Haur eta gaztetxoei eskaintzen zaien gizartearekin kezka adierazi du Prebentzio Mahaiak, eta kezka hori herritarrekin konpartitu eta landu nahi dute aurrerantzean: “Heldu bezala, nolako kontsumo ohiturak bultzatzen ditugu? Gazteei zer transmititu nahi diegu? Nola



Udal sail desberdinetako teknikariek, eta ikastetxeetako eta osasun zentroko ordezkariak osatzen dute, hurrenez hurren, Prebentzio mahaia.



**HERRITARREN
OHITURAK ETA JOERAK
AZTERTU ONDOREN,
KEZKA KOMUNAK
IDENTIFIKATU DITUZTE**

**KIDEEEN USTEZ GUZTIEN
ARTEAN NORABIDE
BEREAN PAUSO
TXIKIAK EMATEA DA
GAKOA**

sustatuko ditugu ohitura osasuntsuak geure artean? Zuk, guraso, irakasle, entrenatzaile, hezitzaile, begirale, dendari, tabernari edota sendagile bezala, ez al duzu kezkarik?”. Prebentzio Mahaiko kideen ustez, guztien artean norabide berean pauso txikiak ematea da gakoa.

Haur eta nerabeen kontsumoan fokoa jarri ordez, beharrezkotzat jo dute helduak zertan ari diren ere aztertzea. Herri mailan gai honen inguruan hausnartzeko, eztabaida sortzeko eta kalera ateratzeko beharra nabarmendu dute. Prebentzio Mahaia dagoela ezagutarazi eta gai hauetaz hitz egiteko proiektuak martxan jartzea da beste zereginetako bat.

Herritarren partehartzea eta konpromisoa izango dute helburu: egiten dituzten urratsak eta abiatutako lanketak ezagutarazi, eta herriak horren gainean ardura bat duela nabarmendu nahi dute. Prebentzio Mahaiko kideen hitzetan, herritarren ongizatea helburu bada, herritar orok du zer egin eta zer esan. ■■■



Zumaiko Udala

Gozatu Santelmoak!



Parte hartu eta ondo pasa errespetuz



JAIETAN ERE ERASO MATXISTARIK EZ!!!



Alkoholarekiko jarrera arduratsua izan eta gogoratu adingabeen kontsumoen ardura helduei dagokiela

Apirilak
26-29

Maiatzak
3-6

Ondo pasa San Telmo Jaiak!!!

Zumaian bizi, Zumaian erosi



ZUMAIA ELKARTEA
Markatutako elkarteak Auzolanen eta enpresen artean



Zumaiko Udala



GERTU



Gaurko eta biharko ikasleak kalitatez formatuz

Zumaiako Institutuaren hezkuntza eskaintza zabala eta eguneratua da; Batxilergoko ikasketak zuzenduta daude ikasleak etorkizunean beharko dituen tresnak eta ezagutzak jakitera. Bigarren Hezkuntzako ikasketa horiez haratago, Administrazioa eta Finantzak Goi Mailako Zikloa ere ikas daiteke bertan.

Batxilergoko eskaintza

Zumaiako Institutuan Batxilergoko hiru adar irakasten dira: Giza Batxilergoa, Gizarte Batxilergoa eta Zientzia eta Teknologia Batxilergoa. Erabat artistikoak diren ikasketak ez daude, baina eskaintzen dituzten irakasgaien aukera zabalarekin esparru hori ere bete egiten dute. Ikasleek etorkizunean aukeratuko dituzten bide guztietarako prestatzea da eskolaren zigilua. Esaterako, Marrazketa Artistikoa eta Artearen Historia moduko irakasgaiak eskaintzen dituzte Arte Ederren aldetik joan nahi dutenentzat. Teknologia eta osasungintza arloa ere oso garatuta dute.



Goi mailako zikloa


Ikasleak Lanbide Heziketarako prestatzea da Institutuaren beste helburuetako bat. Hain zuzen, Goi Mailako Administrarritza eta Finantzetako Zikloa eskaintzen dute. Ziklo horrek enpresetan lan egiteko prestatzen ditu ikasleak. Bi urteko iraupena du eta enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzen dute. Gainera, eskolan bertan “enpresa simulatua” deritzon gela bat dute. Ikasketek irauten duten bitartean ikasleek bi programatan parte hartzeko aukera dute: Duala eta Erasmus+.

Euskalduna eta kalitatezkoa

Heziketa euskalduna ahalbidetzea da Institutuaren ezaugarri propioa eta esanguratsuenetako bat. Hori dela eta, Euskal Curriculumari garrantzi handia ematen die. Horren adibide dira irakasten dituzten Euskal Herritarren Historia, Euskal Dantzak... Bide beretik, ezagutza propioetik ematen diren irakasgai ezberdinak ere eskaintzen dituzte: Psikologia, Anatomia, Erlaxazioa...

Euskara sustraitzat hartuta, eleanitzak ere badira. Ingelesa eta frantsesa eskaintzen dituzte, eta ingelesaren kasuan, irakasle natibo batekin egiten dituzte mintzapraktikak.

Proiektu propioak



Diziplinartekoak eta propioak diren hainbat proiektu ateratzen dituzte aurrera. Nagusietako bat Txikipediarena da. Egitasmo hori berritzailea eta aitzindaria da hezkuntza



hori bilatzen da, esaterako, orientazio zerbitzuan. Horri esker, ikasleek (eta gurasoek) gomendioak eta aholkuak jasotzen dituzte hainbat arlotan.

Aurrematrikulazioa eta ate irekiak

Datorren ikasturtean Institutura joan nahi dutenentzat ate irekien jardunaldia egingo dute apirilaren 13an, larunbatean, 10:30ean. Aurrematrikulazioa, berriz, maiatzaren 2tik 14ra egin ahal izango da. ■■■



munduan; izan ere, bakarrenetakoak dira Txikipediarako edukiak sortzea eskolako proiektu osotzat dutenak. Horrez gain, musika eta teknologia uztartzen dituen Steam proiektua ere garatzen dute. Eusko Jaurlaritzatik datozen lanketak ere egiten dituzte, eta horiekin guztiekin, ikasleen sormena, baliabideak eta ezagutzak handitzea lortzen dute.

Ekosistema hezitzailea

Interbentzio espezifikoak egiten dituzte noizbehinka. Horretarako, herriko talde eta eragileen parte hartzea bilatzen dute. Bestalde, komunitatea sortzeko, integrazioa eta inklusibitateari garrantzi handia ematen diete. ZIG gelako ikasleak Batxilergoko ikasleekin batera egoten dira

irakasgai batzuetan. Horri esker elkarbizitza sendoagoa eraikitzen dute. Patioa ere eremu hezitzailea bihurtu dute eta erabilera anitzeko espazio bihurtu da. Gurasoekin eta ikasleekin harremanak estuak dira, eta



Ezin beste modu batera adierazi

Olatz Goiburu, ertzak koloreztatuz

Agerikoa denaren itzalpea, asko dago arakatzeko, eta agerikoa baino interesgarriagoa izaten da askotan. Hala aritzen da Olatz Goiburu margolaria bere lanetan. Irakaslea da ofizioz duela urte batzuetatik, baina pintura du barne kezka adierazteko modu behinena. Bere estudioko ateak zabaldu dizkio *Baleikeri*.

Testua: **Julen Aperribai**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Arrautza kaxak, garagardo botila hutsak, besorik edo bururik gabeko manikiak... edonoren begietara zaborra denak beste zentzu bat du Olatz Goiburu artistaren estudioan. Edozein objektu izan daiteke artelan baten euskarria edo abiapuntua.

Margolaritzat du bere burua beste ezeren gaineratik, ordea: “Eremu horretan sentitzen naiz erosoan”.

Kolektiboki ekin zion ibilbide artistikoari Goiburuk, Legazpin, bere jaioterrian. Txo! kolektiboan eman zituen lehen urratsak, Carlos Ausserladscheiderren –iaz zendu zen– eta Gorka Salmeronen alboan. Kolektiboan sartu zen hirugarren pertsona izan zen bera, Arte Ederretako ikasketak bukatzeke zituela. “Erakusketak egitea oso zaila da, hasieran, batez ere. Zuk zail ikusten duzu, behintzat, edo ez zara ausartzen. Urrats hori errazago egiten da kolektibo baten parte zarenean. Kolektiboko jendearekin beti oso gustura aritu naiz. Garai zailetan ere asko lagundu didate, eta agian horregatik jarraitzen dut oraindik margotzen”. Izan ere, 25 urte baino gehiago igaro dira ordutik, eta margotzen jarraitzen du “Hau naiz ni, eta hau

gabe ez nintzateke ni izango”, dio, inguruan dituen margolanei begira.

Espresio modu hori ez du inoiz ogibide bihurtu, ordea, eta bestelako lanetan aritu izan da beti. Dentista laguntzaile eta diseinatzaile grafiko lanetan ibilia, irakaskuntzan ari da duela urte batzuetatik. Artetik bizitzen saiatzeak bizirautea esan nahi du sarritan, baina ez da hori izan Goibururen hautua. Errealista dela dio: “Nik neure obra estimatzen dut, eta ez dut uste txarra denik, benetan. Badakit nik egiten dudana ez dela salgarria, ordea. Jende askorentzat desatseginak dira nire lanak, eta deseroso sentitzen dira”. Bere lana artearen merkatura egokitu gabe jarraitu du. “Uste dut hasieratik argi xamar nuela ez nintzela honetatik biziko. Behin hori barneratuta, libre naiz nahi dudana egiteko. Badakit pinturatik bizi direnek presio handia izaten dutela. Margolan mota bat asko salduz gero, margolan mota horretan iltzatuta geratzeko arriskua dago, eta ez nuke nahi niri halakorik gertatzerik”.

Deserosotasunean eroso

Publikoa uxatu dezakeen era berean, erakarri ere egin dezake obra baten aurreak deseroso sentitzeak. Epeltasunetik urruntzen da



irrimarra



Goibururen obra, eta deigarriak bezain gordinak dira bere koadroak. “Emakumearen gorputzarekin lotuta daude asko. Gorputz zaurituak dira, ez dira gorputz garbiak. Amatasunaren alde iluna azaleratzen ere saiatzen naiz. Batzuetan, anbiguotasunarekin jolasten dut, eta ez da garbi geratzen gorputza gizonezko batena edo emakumezko batena den”, azaldu du. Gorputz kanonikoen iruditegia apurtzen du Goibururen lanak, eta horrek sortzen die deserosotasuna batzuei, haren ustez: “Jendeari gauza oso garbiak gustatzen zaizkiola iruditzen zait”. Collagera jotzen du askotan. Alde iluna islatzeko xomorroen eta eulien marrazkiak ere sarri egin ohi ditu.

Barne kezketatik edaten du, eta gardena da horretan Goiburu: “Emakumeen munduak eta generoarenak erakartzen nau, batez ere. Gai horien inguruko kezkak betidanik izan ditut. Amatasuna da horietako bat. Ama naiz eta asko disfrutatu dut amatasunean, baina, era berean, amatasunaz neukan irudia erabat puskatu zitzaidan, behin ama izanda. Zeharo aldatzen da zure gorputzarekin duzun harremana, eta mitoak erortzen dira. Hori horrela da, eta saiatzen naiz nire margoetan azaleratzen”.

Bestelako kezkak ere hauteman daitezke haren obran, begirada kritikoz landuak eta egungo gizartearen hainbat mamu azaleratzen dituztenak. Garbitasunari gordintasuna kontrajartzen dio, bere obran ez ezik, obra hori gauzatzeko erabilitako materialetan. Teknika nahasian aritu ohi da, eta era askotako materialak nahasten ditu. “Berdin zait zer erabili”, dio, garai

batean egindako koadro bati hautsa kentzen dion bitartean. Euskarriak ere ez du garrantzirik. “Mihiseak erosten ditudanean, perfektuegiak izaten dira. Askotan, nahiago izaten dut ohol puska baten gainean margotu. Inperfekzioa bilatzen dut nire marrazkietako gorputzetan, eta horretan ere bai”.

Euskarri moduan erabilitako liburuz eta koaderno betetako hamaika kaxa ere baditu estudioan. Zirriborroak egiten ditu bertan, eta bakarren batzuk koadroetara ere eramaten ditu. “Marrazkiak intuitiboki egiten aritzen naiz batzuetan, orbanekin jolastuz”, azaldu du. Ideia egituratuago eramaten du estudioara beste batzuetan, hasiera behintzat: “Ideia edo amets

Olatz Goiburu Perez

- **Adina:** 52 urte.
- **Ikasketak:** Arte Ederretan Lizentziatura eta Klinika Laguntzaile titulua.
- **Lanbidea:** Irakaslea.
- **Margolaria eta irakaslea ez banintz...** Mezenasa izango nintzateke, dirua izango banu [barreak].
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Erlaxatzera zeramikako klaseetara joaten naiz. Horrez gain, paseatzea eta sukaldean ibiltzea ere gogoko dut.



batetik ateratzen dira gauzak. Oso ideia erromantikoa dirudi, baina bai, benetan, batzuetan gertatzen da”.

Espresatzeko modua da Olatz Goibururentzat marrazketa, eta erlaxatzekoa, berriz, zeramika. Foronda kultur etxean zeramika tailerra emango zutela jakin bezain laster eman zuen izena. “Beti gustatu izan zait, baina ordura arte ez nuen lantzeko aukerarik izan. Oso gustura nago Keixetarekin eta bertan elkartzen garen gainerako lagunekin”. Kolore biziak eta deigarriak erabiltzen ditu margoetan, eta nabari da joera horren eragina estudioko txoko batean dituen zeramikazko pieza txikietan.

Estudiotik ikasgelara

Presiorik, egutegirik eta luzerako begiradarik gabe egiten du lan estudioan Goiburuk. Suertatu ahala ekiten die esku artean dituen proiektuei: “Ez naiz hemendik bizi, eta, beraz, oso libre sentitzen naiz”. Denbora falta du muga bakarra, nahiz eta gaineratu duen agian “beste gauza batzuk” probatuko lituzkeela, diru gehiago izanez gero.

Irakasle lanetan ematen du egunaren zati handiena, ordea. Donostian ari da aurten, baina urtetik urtera aldatzen du lanlekua. “Ez naiz funtzionarioa, eta ez nuke izan nahi, gainera”, aitortu du. Batxilergoan ematen ditu aurten klaseak: Marrazketa Artistikoa, Teknika eta Artearen Oinarriak.

Gustura ari da irakaskuntza munduan. Estudioko lanekoa eta ikasgelakoa erabat desberdinak izanagatik, ikusten du loturarik bien artean: “Bizi eta pentsatzen dudana azalerraten da klasea ematean, eta, beraz, arteaz dudana ikuspegia ere transmititzen dut”. Transmisioa beste norabidean ere ematen dela dio: “Gustatzen zait gazteekin lan egitea. Horrela, ez duzu galtzen haiekiko lotura. Nik uste dut belaunaldien arteko jautzia gertatzen dela haien lekuan jartzen ez zarenean, eta nire lanak horretarako aukera ematen dit. Gainera, nire obretan lantzen ditudan gaiak oso presente izaten dituzte nire ikasleek”. Izan ere, estudioan nola, hala aritzen da ikasgelan, begirada kritikoa galdu gabe, irakasten, ikasten eta desikasten. ■■■

BIYONA

BERRIKUNTZAK-BARNE DISEINUA

Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA
943-14 34 43
www.biyona.net ·

SUKALDEAK

Bainugelak

ETXEKO ALTZARIAK

Papel pintatuak

LEIHOAK

Keramika

GREMIOEN KOORDINAZIOA

BAZKIDE KLUBEKO ZOSKETAK



Hezur Beltzak diskoa: Unai Gijarro eta Alaitz Aizpurua



Ekinek emandako 4K kamera: Igor Albizu Florez



Errigora: Pedro Etxabe eta Alfredo Zabaleta



APIRILAK 8

Itzurun taberna: 4 lagunentzako jatordua.

APIRILAK 23

On Gourmet.

APIRILAK 30

Zelai talasoterapian zirkuitua bi lagunentzat.

MAIATZAK 6

Ongizanen fisioterapia saioa lagun batentzat.

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiak jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAIA: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hileroko.

BQD BIDAIAK: Lau bono.

ANTZERKIRAKO SARRERAK: Emanaldi bakoitzeko hiru lagunentzako bina sarrera.

SANAGUSTIN KULTURGUNEA: Kontzertuetarako sarrerak.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!

Bazkide egiteko bideak:


Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-emailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45

Irudi engainariak

Zortzi zati hauek hiru irudi nagusitik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, antz handia izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Esaera zaharrak

Esaldi hauek bat etor litezke marrazkiak adierazten duenarekin, baina denak ez dira esaera zaharrak. Zehazki esanda, erdiak asmatuak dira. Bereiziko al dituzu?

- 1 Martxoko eguzkia, txarren txarrena
- 2 Apirilean ezin jakin noiz izango den ateri
- 3 Maitasuna eta gorrotoa bezala, eguzkia eta euria, elkarren kontrario
- 4 Apirila euritsu, urtea kakatsu
- 5 Eguzkia eta euri, martxoko eguraldi
- 6 Euriak ez daki eguzkia ahaltsuagoa dela


Marraztu zure mozorro-jantzirik gustukoena.

SUDOKUA



Txinako kondaira baten arabera, Lu Mei neskatok asmatu zuen aterkia, oso aspaldi. Erronka bota omen zion anaiari, euriaz babesteko tresna onena zeinek asmatuko, eta berak irabazi.

Osa ezazu sudokua, ATERKI hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (A, T, E, R, K eta I). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

garay
manufacture

www.garay.eus

1989tik sukalde atzariatzen lanean

HITZORDUA ESKATU ETA LANTEGIRA HURBILDU:
Olabidea aldea 1 (Erofaberri Industrialea)
20.800, ZARAUZ 943 13 31 09

GUK
DISEINATU ETA
EKOIZTUTAKO
SUKALDEAK

BASUSTA
erretegia · asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Tel.: 943-86 20 73
943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKO
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57

www.eduoptika.com

RPS 18/16

EGOKI

Eroju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

ekin
Elektronikak, S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaia tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.ekinl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNTO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

ERTZ INFORMATIKA

Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Behoko plaza tel./faxa: 943-14 33 95

Galdona
burdindegia

Mendaro marina, 1 tel. 943-86 11 17 - 943-14 33 46
Juan Belmonte, 15 taxa 943-86 13 30

Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel. 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 behea
tel. 670 39 17 77

matrikulazioa dohainik!

**goiko
bodegoia**

Erribera, 9 · 943-86 13 91

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure Txokoa
aberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaia
Tel.: 943-86 09 70

DOIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Bideo jokoan arriskuak II



MAVI CARCELLER
SENDAGILEA

Bideo jokoan diseinua ausazko jokoan oso-oso parekoa da. Hori gertatzen da "Loot boxes" edo "sari kutxak" dauzkaten bideo jokoan kasuan.

"Loot boxes" izenekoak sariak eskaintzen dituzten bideo joko batzuk dira, jokoa irabazitako edo zerbait lortutakoan. Taldeka jokatzen diren bideo joko gehienek eta konsola joko batzuek erabiltzen dituzte baliabide hauek: Fortnite-k, Clash Royale-k, Candy Crush-ek, Brawl stars-ek, eta Star Wars Battlefront-ek, besteak beste.

Gehienetan sariak lortzeko aukera gehiago ematen dira "loot boxes" diru errealekin erosiz gero. Horiei mikropagoak deitzen diete. Adingabeek ordainketa horiek egiteko aukera daukate, bakarrik, gurasoek ezer jakin gabe, App-store-ri, Play Store-ri edo Play Station-i lotutako gurasoen kreditu txartelak erabilia.

Mugikorretarako joko batzuek aukera ematen dute doan jokatzeko, nahiz eta publizitatearekin. "Kutxak" erosten dira diru birtuala, gemak, hauts distiratsua eta abar erabilia. Kutxa horiek irekitzeak makina

txanponjaleen antzeko efektua sortzen du. Kutxek argiak, musika, biziagoa izaten dute sariaren errebelazioa gerturatzen denean. Irabazleak estimulu ahaztezin horiek sentitzen ditu eta gero eta maizago bilatzen ditu estimulu liluragarri horiek.

Horrelako produktuekiko harremana ludopatiaren eta beste mendekotasun batzuen antzekoa da.

Iaz Europako gobernuak bildu egin ziren mugikorretako, ordenagailuetako eta konsoletako bideo jokoetan "Loot boxes"-en ugaritzea arautzeko, gazteak babesteko asmoz. Uste dute ordainketa txiki horiek apustuen antzeko jarduerak direla, guztiz legez kanpokoak adingabeek erabiltzen badituzte. Belgikan eta Herbehereetan "Loot boxes" dituzten produktuak debekatu egin dituzte. Bideo jokoetako enpresek ez dituzte desagerrarazi egin nahi, milaka milioi sortzen baitituzte.

**GURASOOK JAKIN
BEHAR DUGU JOKO
HORIEK ZER ARRISKU
DAUZKATEN**

Modan omen dagoen Brawl Stars bideo jokoa buruz Wikipedian jartzen duena irakurtzen baduzue, ikusiko duzue zer galduak gauden gai hauekin; besteak beste honelako hitzak ageri dira: trofeo, token, kill, megabatido, Camino de trofeos, atrapagemas, caza estelar, pelea robótica, todos contra uno..., hitz erakargarriak eta benetan beldurgarriak.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Euskadi 2017-2021 Mendekotasunen VII. Plana daukagu. Jolas eta Ikuskizun Zuzendaritzak (Segurtasun Sailean) du jokoak arautzeko eta kontrolatzeko ardura. Bere aldetik, Osasun Sailak Adikzioen eta Droga Mendekotasunen Arreta Integralaren 1/2016 Legean ezarritako jokabide mendekotasunak barneratu ditu.

Gurasook jakin behar dugu joko horiek zer arrisku dauzkaten, gure seme-alabekin hitz egin behar dugu eta babes neurriak hartu behar ditugu, gure seme-alabek ordainketa txiki birtualik egin ezin dezaten, ez ditzaten erabili joko horiek beste norbait erasotzeko eta jokoarekiko mendekotasun nahasia izan ez dezaten. ■■■

PUBLIZITATEA



iriando optika

Kantauri plaza, 8. Zumaia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orotarako solinu
eta argiztapen alokairua
Hotz eta Irudigintza aretoa

tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel.: 943-86 07 60

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77



943-86 20 83

ORRAZTEGI
ZUMAI A

KABI Patxita Etxezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



Upela plaza, 8
tel. 943-86 25 17

LABARRA TABERNA
ZUMAIA
est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943-86 04 84



malaur

CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO S.L.

Elektrizitatea

Uroia plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3. blokea - tel. 943-86 16 91



LIDEN
eraikuntzak eta arkitektura

biakoaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com



NOIA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etegabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943-86 13 63
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-60 62 91
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzera

Estazioko kalea, 12 · tel. 943-86 14 12 · 686 36 41 49

Aldaketa bakoitza dolu bat da

DOLUA

**IZAR ARREGI**

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Dolua aipatzen dugunean heriotza da burura datorkigun lehen ideia, baina bizitzan gertatzen zaigun aldaketa bakoitzak dakar bere dolua. Dolua, azken finean, prozesu bat da. Agur esan behar zaio galdutakoari eta aurrera egin.

Adibidez, nerabezeroan gertatzen da dolu prozesu nabarmena. Aldaketa fase oso handia da. Umetasunari agur esan behar zaio eta gaztetasunera pasa. Umetasunak dauzkan hainbat kontu galduko ditugu – gurasoen mimoak, adibidez–, eta bizitzari aurre egin beharko diogu, kezka berriekin eta ardura gehiagorekin. Eta aldaketa fase horretan gatazkak gertatzen dira. "Gurasoek paga ematea nahi dut merezi dudalako, askatasuna nahi dut ume bat ez naizelako... baina oraindik ez dut ohea egin nahi, eta gauzez nirekin oheratzea nahi dut". Gorputza aldatzen hasten zaie, ahotsa ere aldatu egiten zaie, eta tristura puntu bat ere izaten dute. Dolua pasa beharra dute.

Aldaketa handiena nerabeek beraiek bizi dute, noski, baina gurasoentzat ere garai zaila izaten da. Agur esan behar diote "eskola familia" izateari: bukatu dira eskola kirola, gelako meriendak... Eta beraien dolua pasa behar dute, agur esan

beharko diote umeari eta kaixo gazteari. Elkarbizitarako estrategia berriak ikasi behar dituzte etxean lehen nerabea daukatenean.

Horrez gain, kontuan izan behar da gurasoak ere aurrera doazela adinean. 50 urtetik aurrera osasun gorabeherak sarriago agertzen dira eta sasoi ez da ordura arte bezalako. Bat-batean sentitzen dute ez direla seme-alabak dominatzeko gai, familiarekin ezinean dabiltzala. Nerabe baten guraso izatea zaila da eta askotan ez da atsegina izaten. Normalena da etengabeko borroka batean ibiltzea, goizean ohea egin dezan, mahaia jaso dezan edo etxeko lanak egin ditzan lagunekin kalera alde egin baino lehen. Oso ohikoa da gurasoekin beti muturtuta ibiltzea eta lagunekin berriz zoragarri. "Atzo goizera arte ume maitagarria zen eta orain petralduta dago egun osoa". Hori kudeatzea ez da batere erraza. "Jatordu bakar bat ere ez bakean, oporretara ere ez dute nahi gurasoekin eta ni, gainera, menopausiarekin, amak laguntza behar du gaixo

**NERABE BATEN
GURASO IZATEA
ZAILA DA ETA
ASKOTAN EZ DA
ATSEGINA IZATEN**

dagoelako eta neu ere zaharra ikusten naiz, bikotearekin kokoteraino nago...".

Nerabezeroan bezala, esan genezake bizitza bera dela etapa aldaketa etengabea, eta aldaketa bakoitzak dakar bere dolua. Lan aldaketak, etxe aldaketak edota bikote aldaketak doluak dira. Eta beti prozesua berbera izaten da: aurrena, egoeraz jabetzea; ondoren, onartu zer galdu den, egoera berrira egokitu eta, azkenik, oroitzapen eskertua gorde. Normala da amorrua eta tristura sentitzea, geratzen ari dena ukatzea. Baina, azkenean, egoera berrira egokitu beharra dago, gertatu dena onartu, eta dolua ondo osatzeko, amaiera positiboa behar da, oroitzapen eskertua. "Ederra izan zen, eskerrak ematen dizkiot bizitzari hura bizitzeko aukera izan nuelako".

Dudarik gabe, maite ditugunen heriotza izaten da dolurik gogorrena eta zailena. Eragin handia izaten du nola gertatzen den. Baina, azken finean, galera bat dago, aldaketa handi bat gure bizitzan, eta egokitze prozesu bati egin behar zaio aurre. Eta prozesu horren fase guztiak gainditu behar dira dolua ondo osatu eta bizitzarekin jarraitu ahal izateko, bestela ezin da gainditu. Baina heriotzaren gai honek sakonago aztertzea merezi du eta hurrengo hilean jarraituko dugu. ■

Algorri eta dinosauroen desagerpena: Mexiko eta India lotzen dituen teoria ikusgarria

Aspaldi entzun nion geologo ospetsu bati Zumaiako flyschak beti izango duela erantzun bat zientziak planteatzen dituen galderari aurre egiteko. Hori dela gure labarren bedeinkapena. Eta gertatu da.

Testua: **Asier Hilario doktorea. Geoparkea, eta José Antonio Arz irakaslea. Zaragozako Unibertsitatea**

Meteoritoa edo bolkanismoa? Berrogei urte pasatu dira Algorriko geruza gorrixka horiek mundu guztian ezagunak egin zirela. Bertan aurki daitekeen kapa beltz fin batean oinarriturik, 1980. urtean, Jan Smit eta Walter Alvarez geologoen dinosauroak meteorito baten talkarengatik desagertu zirela proposatu zuten. Zein izan zen beraien froga nagusia? Flyscha eratzten duten kapa horiek guztiek itsaso azpian sortu ziren sedimentu fin eta fosil txikien metaketaren bitartez. Geruza horiek guztiak liburu erraldoi baten orrialdeak bezalakoak dira eta bertan harrapatuta dauden milaka fosil txikiak liburuaren pertsonaiak. Liburu horrek milaka orrialde ditu, baina Algorrin kokatzen den kapa misterioitsu hori berezia da, oso berezia, bereziena, agian. 66 milioi urte ditu eta 2 milimetro zabaleran basterik ez, baina bertan ikusitako fosil itsastarren % 75 baino gehiago desagertu egiten dira kontinenteetan bizi ziren dinosauroekin batera. Zergatik? Kapa misterioitsu horrek lurtean oso urria den elementu arraro bat zuen: iridioa. Hori izan zen meteoritoaren talkaren teoriaren argudio nagusia. Fosilen desagerpena bat bat-batekoa zen (kapa bakar batean) eta ez zegoen beste modurik iridioaren jatorria azaltzeko. Kretazeoaren bukaera eta Paleogenoaren hasiera izan zen hori. Horregatik deitezen zaio K/Pg muga.



Jan Smit geologo holandarra Algorriko kalan *Flysch*, *Haitzen Hitza* dokumentala grabatzera etorri zenean (2009). GORKA ZABALETA



Laginketa egiten Algorriko kalan.

Gaur egun teoria hori komunitate zientifikoaren % 99% babesten du, baina badago beste ideia bat. Indian, garai hartan, ikaragarritzko aktibitate bolkanikoa gertatu zen. “Deccan Traps” izenez hezagutzen da. Kolada bolkanikoen Iberiar penintsularen tamaina hirukoizten duen azalera estali zuten eta beti egon dira aktibitate hori kretazeo bukaerako suntsipen masiboaren errudun nagusia izan zela defendatu dutenak. Teoria horren ahultasun nagusiak aktibitate bolkaniko horren datazio zehatza eta iraupen luzea izan dira, baina azken urteotan argitaratutako datu batzuk berriro piztu dute eztabaida. Noiz izan zen Indiako aktibitate bolkaniko nagusia? Justu duela 66 milioi urte? Pixka bat lehenago? Pixka bat geroago? Zenbat lehenago edo geroago?

Ikerketa eta metodologia

Geoparkeak eta Biotopo babestuak Zaragozako Unibertsitateko adituekin ikerketa bat bultzatu du. Jakin nahi genuen gure labarretako K/Pg mugak eztabaida honetan argirik eman ote zezakeen. Gure flyschak abantaila handi bat du: zehaztasun handiz irakur daiteke duela 66 milioi urte gertatu zena.

Horretarako, kapa beltz horren inguruan (16 m azpitik eta 8 m gainetik) 105 lagin hartu ditugu bi gauza aztertzeko:

- 1) Oxigeno 18 eta Karbono 13 isotopoak. Oxfordeko Unibertsitatean aztertu dutuzte eta momentu bakoitzeko tenperatura eta ingurune baldintzak ematen dizkigute.
- 2) Mikrofosilen azterketa. Baldintza aldaketa horiei mikrofosilek ematen dieten erantzuna: kopurua, morfologiak, agerpen berriak edo desagertuak.

Emaitzak. Beroaldiak lehenago eta geroago


105 laginak aztertu eta gero, emaitzak argiak dira. Argiak eta harrigarriak!

- 1) K/Pg muga kapa beltzaren azpian (66 Mu) (+/- 200 mila urte lehenago) beroaldi bat agertzen da. Tramo horretan azaltzen diren espezieetan eraldaketa txiki batzuk ikus daitezke, baina beroaldia bukatzen denean, lehenera bueltatzen dira. Ez da desagerpenik ikusten. Beroaldi hori Indiako bolkanismoaren lehen fasearekin lotu daiteke, baina argi dago horrek ez duela suntsipen masiborik eragiten.
- 2) K/Pg muga kapa beltzean espezieen suntsipen masiboa bat bat-batekoa da eta horrekin batera 10.000 urte irauten duen beroaldi bortitza ere neur daiteke. Desagerpen masiboa eta beroaldi horren hasiera meteoritoaren talkak sorturiko negutegi efektuarekin lotzen da, baina seguruenik bolkanismoak ere izan zuen eragina.
- 3) K/Pg muga kapa beltzaren gainean bi beroaldi neurtu ahal izan dira eta horrekin batera espezie oportunisten agerpena. Talkaren ostean gertatu ziren bi beroaldi horiek Indiako bolkanismoaren fase nagusiarekin lotu daitezke.

Ondorioak. Meteoritoak sortu omen zuen indiako bolkanismoa

Algorriko labarrek beste behin argia jarri dute mundu mailako eztabaida zientifikoan.

- 1) Kretazeo bukaerako desagerpen masiboa ez da graduala. Bat-batean gertatu zen, 66 milioi urte eta 2 milimetro dituen kapa beltz eta misteriozko batean. Desagerpen hori meteoritoaren talkarekin bat dator.
- 2) Hori baino lehen, Indiako bolkanismoarekin lotu daitekeen beroaldi bat neur daiteke, baina, dirudienez, horrek ez du eragin handirik ekosistemetan.
- 3) K/Pg muga eta gero bi beroaldi neur daitezke eta horiek Indiako bolkanismoaren fase nagusiarekin lotu daitezke; beraz, Indiako bolkanismo nagusia desagerpen masiboa baino geroago gertatu zen. Pixka bat geroago, baina atzetik; beraz, ezin zaio extinzioaren ardura leporatu.
- 4) Hain denbora txikian horrelako bi gertakari garrantzitsu izatea kasualitate handia da. Horregatik, Algorrin ikasitakoak 2015ean proposatu zen teoria berri batekin bat datoz: Mexikon gertatu zen meteorito talka erraldoiak lurraren barruan sortu zituen dardarek indiaraino bidaiatu zuten eta han Deccan-eko bolkanismoaren fase nagusia aktibatuz zuten. ■■■



Ikerketaren emaitzak. Kolore laranja duten tartean beroaldiak neurtu diren zatiak markatzen dituzte. K/Pg mugan dagoen kolore gorria da beroaldi handiena adierazten duena. Meteoritoaren talkarekin eta horrek sorturiko dardarak Indian aktibatuz bolkanismoaren fase nagusiarekin lotuta egon daiteke.

ALGORRIN KOKATZEN DEN KAPA HORI BEREZIA DA, OSO BEREZIA, BEREZIENA, AGIAN

KRETAZEO BUKAERAKO DESAGERPEN MASIBOA EZ DA GRADUALA. BAT-BATEAN GERTATU ZEN

Kanoiak, danbatekoen oihartzunak



IMANOL AZKUE

Kanpotarrek gure kanoiak ikusten dituztenean eta galdetu, behin baino gehiagotan tokatu izan zait azalpenak eman beharra, gure herria ez dela bereziki herri liskartsua edo gerran zaildua. Baina nekez imajina daiteke kanoien bestelako erabilerarik, ez bada guda eta borroka, txikizioa. Zumaian ez dugu izan Amaiurko setiorik, Leningradorik, Intxortako frontierik..., baina gatazkak eta gerrak izan dira, bazter gehienetan bezala, eta horien lekuko –gaur egun isilak– dira gure kanoiak.

Herrian zehar banatuta aurkituko ditugu, bost lekutan: Paolean, Kresala etxearen aurrealdean (3); Arbustaingo Arranplan, erdi ezkutatuta (2); Otsangoko eskaileretan, Alondegiaren ondoan (1); Moilaberrian (2); eta kirol portuan (2). Denak ez dira berdinak, ordea: batzuk benetako kanoiak dira; beste batzuk, berriz, gezurretakoak, itxura egitekoak. Gaur egun apaingarri hutsak dira, zaldi gainean bezala jarri eta argazkiak ateratzekoak, baina garai batean beste funtzio bat zeukaten: herria babestea; izan ere, sarritan erasoak itsasaldetik etortzen ziren, eta horiei aurre egiteko eta bere burua defendatzeko prestatuta zegoen gure herria.

Historian zehar, gertakari politikoez eta militarrek gurean ere eragin izan dute: itsaslapurren harrapaketak, 1766ko matxinada, atzerriko potentzien (Ingalaterraren eta Frantziaren) inbasioak, gerra karlistak, 1868ko “Gloriosa”, Gerra Zibila... Gurean ere entzun ziren tiro hotsak eta kanoikadak, eta horietako batzuen arrastoak dira kanoiak. Baina zer dakigu, zehazki, kanoi hauen gainean? Luis Martínez Kleiser madrildarrak eta Rafael Del Pilar lagunak berariaz aitatzen dituzte kanoiak beraien liburuetan¹, eta horiei jarraituz, badakigu 1636an kanpotik etorritako sarjentu batek Zumaiaiko armak eta gotorlekuak ikuskatu zituela, eta ondo babestuta ikusi zuela, itsasaldetik izan ezik; horregatik, gaur egun Alondegia dagoen horretan gotorleku bat egin zuten. Beste gotorleku bat ere bazegoen, ordea: 1638an, garita bat jarri zuten Paolaldean, Talaiepe eta Junta egon ziren horretan; “magacén de las municiones” deitzen zioten (hau da, munizio biltegia), eta leku horren izenak emango digu han zegoenaren arrastoa; izan ere, gaztelaniaz, “Punta del cañón” deitzen zioten han hasi eta ibaia zeharkatuta Santiagoko errepiderraino doan haitz brankadari, eta euskaraz “Puntako haitza”. 1694an, Mari kaleko fuertean, kanoi gurdien gainean jarri zituzten kanoiak,

eta etengabe ondo mantendu zuten urteetan zehar; 1776an, adibidez: “Así mismo, se dio comisión en forma a dicho Agustín Ignacio de Echave para que haga la obrilla de Pared y asientos que se premeditan, y hay necesidad en la punta o fortín de calle berria [edo Mari kalea]”²; beste aipamen hau, berriz, 1799koa da: itsasoan frantsesen nabioak eta fragatak ikusi zituztela eta, “se limpien de nuevo los dos cañones únicos que existen en el Fuerte de San Felipe, a la entrada de este Puerto, como prevenir al vigía Manuel de Arrazcaeta esté a la mira de si se acercan a estos Mares algunas naves enemigas con señales de desembarco, invasión o cosa equivalente”³; gaur egun ere, Alondegiaren azken solairutik gure herriaren ikuspegi bikaina dago. .

Rafael Del Pilarrek ondo baino hobeto deskribatzen ditu gure kanoien ezaugarriak: “sacre” motakoak ziren, burdinazkoak; XVII. mendean egin ziren eta 1.000 kg inguru pisatzen zuten; ahotik kargatzen ziren, 9 cm-ko diametroko eta 3 kg inguruko bala esferikoak disparatzen zituzten, 250-300 metrora nahikoa ondo asmatzeko moduan, eta gehienez ere 800/1.000 metrora.

Kanoi hauek garai batean bazeukaten funtzioa, baina zaharkitu egin ziren. Mari



Kanoien kokalekua, izarren bidez; gorritz, horiz; berdez, gezurretaoak.


kaleko gotorlekua ez zen hain beharrezkoa, Parrokiaren ondoan etxeak eraikitzeko asmoa zegoen, eta Rafael Del Pilarren hitzetan, “Bat-batean, lehen ederrak eta mimatuak izandako pieza haiek, hainbat eta hainbat adinekori gertatzen zaien bezala, inork ere nahi ez dituen ‘alferrikako traste’ bihurtu ziren”. Ahaztuta egon ziren bazterrean, zakar eta sasi artean, harik eta XX. mendearen hasieran, Arrangoletan bete lana egin ondoren, Paolbideko pasealekuko petrilean ahuspez sartu zituzten arte, itsasontziak



Gaztelaniaz “Punta del cañón” deitzen zioten inguru honi, eta euskaraz “Puntako haitza”.



Hona hemen bi kanoi, ahuspez sartuta, Arbustainen. Bietatik, zein da benetakoa?



Rafael Del Pilarrek ondo baino hobeto hartu zituen kanoien neurriak 2003an (Arrangoleta liburutik hartua).



Kanoi hau Moilaberrian dago, eta Bernabe Apestegiren fundizioan egon zen.

PUBLIZITATEA



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaiz, 1 Tel. 943-14 31 12
oskarbi kirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indushtingunaa, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: **943-86 13 25**
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

Rosi Garbiketak

**Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa**

Basadi, 3-A tel. 943-01 63 53



SOLOZABAL
autoeskolak

Etkezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

talaja
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70



Tapaia
taberna

Eribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondoak (kodilloa)
Saltxitxak, oilskoak...
Garagardoak aukeran

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97



Xanti
ALTZARIAK

Amaiako plaza, 13 tel. 943-86 23 85
www.xantialtzariak.com

yoana ileapaindegia



Amiaia plaza,
2 behea
943-14 32 78

Zalla



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Uzpla Plaza 3 • 943-86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com



BASADI, 12
20750 ZUMAIA
tel. 94386 10 18 / Fax: 94301 61 26

Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia



Alai auzategia • 20750 Zumaia • tel. 943-14 34 41 • faxa 943-86 51 61

BALEIKEK
25 Urte

zatoz gurekin ospatzera




Mari kaletik ederki zaintzen da Paolaldea.



Garabiaren faltan, protagonismoa irabazi du *kanoi* honek Arbustainen.

lotzeko aitzakian. Benetako kanoiekin batera, ordea, “gezurretako” beste batzuk ere sartu zituzten, desberdinak; baten batek, gainera, egilearen marka ere badauka: “B. APESTEGUI-ZUMAYA” (alegia, Bernabe Apestegiren fundizioan egina); benetako kanoien antzera, horiek ere itsasontziak lotzeko jarri zituzten, noray edo mutiloi (amarroi) izateko.

Kanoiak porlanetan sartuta egon ziren, harik eta duela hogeit hamar urte inguru (lanak 2003an amaitu zituzten) Paolbidea



Hauxe Rafael Del Pilarren proposamena, kanoiak estalpean ondo gordetzeko (*Arrangoleta* liburutik hartua).

berritu eta atera zituzten arte; orduan, beste “bizitza” bat ematea erabaki zuten: txukundu, pintatu, egurrezko kanoi gurdia jarri... Bat-batean, agerian eta nabarmen geratu zitzaizkigun iraganeko burdinazko pieza haiek, berpiztu izan balira bezala, herri osoan zehar, gainera, eta ia tiro egiteko pronto. Baina lekuri egokienean al daude? Rafael Del Pilarrek, ohi bezala, hausnarketarako bidea eta proposamen zehatza dakar bere liburuan: kresalak jan egiten du burdina, eta pieza hauek benetan estimatzen baditugu eta iraunarazi nahi baditugu, beharrezkoa da estalpean eta babesean gordetzea, eta herrian museo edo leku hoberik ezean, Udaletxean bertan ipintzea badago, sarreran, zutik; marrakia ere egin zuen, proposamenarekin.

2001eko irailean, Inaxio Tolosak “Kanoiak????” izeneko artikulua idatzi zuen *Baleiken*⁴, kanoien historiarekin, eta honela amaitu zuen: “Kanoien historia pittin bat argitu delakoan, orain argitzeko geratzen zaiguna kanoien etorkizuna da”. Ia hogeit hamar urte igaro ondoren, uste dut antzera jarraitzen dugula. ■■■■

¹Hurrenez hurren, hemen:
-MARTÍNEZ KLEISER, Luis: *La Villa Villagrana de Zumaya, Voluntad, Madrid, 1923. 87-89. orrialdeak.*
-DEL PILAR ZUFIA, Rafael: *Arrangoleta 1945-1951 Memorias de un barrio, autoedizioa, Bilbo, 2016. 325-334. orrialdeak.*
²Zumaiako Udal Artxiboa, 69. kaxa, 82. or., 1766-01-14.
³Zumaiako Udal Artxiboa, 70. kaxa, 1799-06-30.
⁴*Baleike*, 89. zk, 22. orrialdea.

KULTURA

Zukanen lehen kapitulua

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

Ion Ansorenak (txistua), Gorka Catedianok (perkusioa) eta Maria Zubimendi zumaiarrak (akordeoia) osatzen duten Trio Zukan hirukoteak lehen diskoa argitaratu du. *Soinuzko begiradak*. Toma uno du izena CDak eta musika garaikideko sei obraz osatzen da, horietatik lau beraientzat espresuki idatzitakoak.

Diskoaren izenburua bakarrik ez, udazkenean bost urte beteko dituen taldeak sorreratik abian duen proiektuaren izena ere bada *Soinuzko begiradak*. “Formazio honetarako obrak eskatu dizkiegu konpositoreei hasieratik. Ez diegu inoiz mugarik jarri; formazio honek sortarazten dizkieten ideiak edota sentrazioak partituran idaztea eskatu diegu”, azaldu digu Maria Zubimendik.

Txisturako, perkusiorako eta akordeoirako aurrez ia lanik ez zegoela gaineratu du Catedianok. “Hasi ginenean, hirukote mota honetarako obra bakarra zegoen. Azken lau urte hauetan guretzat egin dizkiguten lanei esker, errepertorioa osatu dugu, eta hurbilen sentitzen genituen lanak aukeratu ditugu diskorako”.

Sei obra bildu dituzte taldearen lehen CD honetan. Horietatik lau enkarguak dira: Jagoba Astiazaranen *Hamaika ilargi*, Francisco Dominguezen *Seis miradas sobre...*, Isabel Urrutiaren *Etorkiz eta izatez*,



Ion, Maria eta Gorka. TRIO ZUKAN

eta Mikel Chamizoren *Lantz*; beste biak, berriz, bikoterako konposatuta zeuden obrak dira: Gabriel Erkorekaren *Haize-orratz*, eta Magnus Lidnbergen *Metal work*. “Hirukote moduan hasi aurretik, bikote moduan ere lan egin dugu. Diskoa gure ibilbidearen isla izatea nahi izan dugu”, dio Catedianok.

Diskoa Gasteizeko Kontserbatorioan grabatu zuten, 2018ko abuztuan. “Ardura handia izan da guretzat. Aurrez besteen diskoetan kolaboratu dugu, baina hau da erabat gurea den lehen emaitza”, dio Zubimendik. Obra bakoitzaren hartualdi ugari grabatu zituztela diote bi musikariek. “Hirurok batera jo dugu grabazioan. Musika klasikoan

ohikoa da denek batera jotzea, eta hartualdi asko grabatzea. Gero, arazoa izan da hartualdi horiek guztietatik onenak aukeratzea”, azaldu du Catedianok. “Zerbait propioa grabatzen duzunean inoiz ez zaizu iruditzen nahi bezain ona denik. Gure buruaren beste alderdi bat ezagutu dugu hor. Denbora asko generaman lanean eta entseatzan. Baina grabatzean oraindik gehiago eman nahi duzu. Bai, psikologikoki nahiko gogorra izan da”, azpimarratu du Zubimendik.

Diskoa martxoaren hasieran aurkeztu zuten Donostian, Tabakalera. Orain, euskal mugetatik at eramateko asmoa dute. “CD hau aurkezpen txartel bat bezalakoa da guretzat. Euskal Herrian gaude finkatuta, eta gure gogoa Espainian eta Europan zehar jotzea da”, aipatu du Catedianok. Diskoa Spotify, iTunes eta beste plataforma digitaletara igoko dute. CDa saltokietara eramateko asmoa ere badute.

Diskoaren izenburuak garbi dioen bezala, hau proiektuaren lehen hartualdia da. “*Soinuzko begiradak* proiektuak orain arte eman duena da hau. Baina ideia berarekin lanean jarraitzeko asmoa dugu, hau da, obra berriekin lanean jarraitzea”, nabarmendu du Zubimendik. “Baliteke hemendik hiruzpalau urtera bigarren hartualdiarekin itzultzea!”, amaitu du. ■■■

AGENDA

DEIALDIAK

APIRILAK 26-MAIATZAK 5
SANTELMOAK 2019.

MAIATZAK 25-EKAINAK 9
Geoparkeen astea.

ERAKUSKETAK

APIRILAK 7 ARTE
Darahli *Gazteen lankidetz*a 2018.

APIRILAK 12-MAIATZAK 1
Ainara Garcia *Naturari begiradak*.

MAIATZAK 3-12
Beti Gazte dantza taldea.

MAIATZAK 15-29
Forondako zeramika tailerra.

APIRILA

4 OSTEGUNA
Musika Eskolaren jaialdia.
Oikian, 18:30ean.

Dokumentala: *LOU. Dantzan jo ta ke, oinak lehertu nahian*, Korrika kulturala.
Aita Marin, 19:30ean.

5 OSTIRALA
Kontzertua: Zukan Trop, Darahliren eskutik.
Oxford aretoan, 19:00etan.

Antzerkia: *Moko zorrotza*, Txalo.
Aita Marin, 22:00etan.

6-7 ASTEBURUA

Dantza topaketa: *II. Rendez-vous.*
Portuan.



7 IGANDEA
Zinema haurrentzat: *Sahara*, Darahliren eskutik.
Oxford aretoan, 18:00etan.

10 ASTEAZKENA
San Telmo sari banaketa.
Aita Marin, 18:00etan.

Entzunaldia: Musika Eskolaren eskutik.
Komentuan, 18:30ean.

Hitzaldia: *¿Por qué apuestan los jóvenes?*, Ana Estévez Gutierrez.
Oxford aretoan, 18:30ean.

11 OSTEGUNA

Antzerkia haurrentzat: *Tunba, orro egiten besterik ez zekin lehoia.* Didau.
Oxford aretoan, 18:00etan.

Entzunaldia: Musika Eskola.
Komentuan, 18:30ean.

Laburbira.
Aita Marin, 22:00etan.

12-14

Eskubaloia: Mutil jubenilak, Estatuko fase sektoriala.
Lubaki kiroldegian.

17 ASTEAZKENA

Meditazio saioa: Gune elkartearen eskutik.
Forondan, 19:30ean.

24 ASTEAZKENA

Ludotekaren irteera Topic-era (LH 1-3ko haurrak).

Gaztegunearen irteera Goizuetara gaua pasatzera.

25 OSTEGUNA

Ludotekaren irteera Bizkaia Park Abenturara (LH 4-6ko haurrak).

29 ASTELEHENA

Suan Magoa: *Bat 2 Hiru, Magia.*
Santelmoetan.
Aita Marin, 17:00etan.

Hiru galdera



HARIAK

Egilea: Yoseba Peña
Argitaratzailea: Susa
Argitarate urtea: 2018
Orrialdeak: 343
Generoa: Narratiba



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Aldaketaz mintzo da idazlea lan honetan, gerra aurreko emakumeetik frankismo ondorengo emakumeetara izan zen aldaketaz. Hiru emakume kementsuren istorioak ditu hizpide horretarako, gizarteak ezarritako moldeetatik kanpo dauden hiru emakumeren istorioak, ezarritako paper pasiboarekin konformatzen ez direnak, kateak apurtu nahi dituzten hiru emakumeren istorioak.

Lan honekin bere buruan bueltaka ziren hiru galderari erantzun nahi izan dio Yoseba Peñak: nola iritsi ziren auzokideak zirenak Gerra Zibilean elkar salatu, elkar lapurtu edo elkar hiltzera? Nola sortu zen Gerra osteko ernaltze kolektiboa? Nolatan erabaki zuten hainbat gaztek armak hartzea jendea hil edo norbera hiltzerainoko hautua eginaz?

Hiru galdera horiei erantzuteko hiru zatitan banatua dago nobela, hiru

erantzunetan, eta hiru emakume dira bertako protagonistak: Irene, Xexili eta Olatz, belaunaldi desberdineko familia bereko hiru kide.

Lehen zatian, errepublika garaiko klase ertaineko emakume euskaldun baten bizimodua ikusiko dugu, bere egunerokotasunean inguruan hainbat borroka sozial eta politiko jorratzen direlarik, eta nola, bat.batean, udaberri sozial hartatik negu hotzenera igarotzen den.

Bigarren zatian, bi ahizparen arteko talka kontatzen digu: batetik, frankismo betean bizimodu tradizionalaren arabera bizi nahi duen emakumea, politikaz ezer jakin nahi ez duena; bestetik,

ZARAUTZEN KOKATUA, GERTUKOAK EGINGO ZAIKIGU LIBURUKO HAINBAT LEKU ZEIN PERTSONAIA

Parisera joan eta bestelako mundu bat posible dela sinesten duen emakumearena. Bi ahizpa horien gorabeheren bitartez frankismo bukaera aldeko esnatze kolektiboaren berri emango digu idazleak, lehen ikastolen sorrera, etab.

Hirugarren zatian, azkenik, protagonista panfletoak banatzen hasi eta errepresioak bete-betean harrapatuko du. Errepresiotik ihesi ETako militante bihurtu eta handik aurrera korronteak eramango duen emakumearen istorioa kontatzen digu.

Nobela honetan Euskal Herriko berrogeita hamar urteko historiaren deskribapen zehatza egiten digu idazleak. Nabari da ikerketa lan handia dagoela atzean, baina oso idazkera ederrarekin erraz harrapatuko gaitu irakurketak.

Zarautzen kokatua, gertukoak egingo zaizkigu hainbat leku zein pertsonaia, behin irakurtzen hasi eta bukatu arteko lasaitasunik emango ez diguna. ■■■

Hautsak astintzen



GOIZ EDER ITURAIN

Alfonbra astintzen hasi dut goiza, logelako alfonbra txikia. Begirada luzatzea nahikoa izan da auzoko kolore eta tamaina desberdinetako alfonbra sortaz ohartzeko. Alfonbrako hautsak astintzea bururatu al zaigu gaur denoi? Hala dirudi. Egia esan, hautsak astintzea komenigarria ez, beharrezkoa dela uste dut. Ez, ordea, alfonbrako akaro hautsak, buruko ideiak astindu, barruak harrotu, beldurak azaleratu eta sentimenduak mugitzea beharrezko dugu gizakiok. Kulturaren esanahia hain zabala izanik bertako hautsak astintzen saiatuko naiz.

Kultura denok osatzen dugu, denok egiten dugu, denon arteko kohesioak osatzen du. Jaiotzatik karga kulturala dugu, iraganean eta orain, estatikoa eta aldakorra aldi berean. Kultura landu edo jorratu egin behar da; lagun moduan, ideien moduan, asmoen moduan. Kulturaren barnean soka luze bat aurki dezakegu. Soka luze, zabal eta amaigabea.

Sokak bi mutur ditu. Mutur batean, kultura kontsumitzaileak ditugu. Horiek, inertziak edo beren nahiak bultzatuta, liburu bat irakur dezakete, kontzertu bat

entzun, koadro edo argazki bati so egin, antzerki edo dantza emanaldi bat ikusi..., une edo denbora tarte batean sentsazio edo emozio bat sentituko dute, eta horrek, sokaren zati eraginkor bihurtuko ditu.

Beste muturrean, sortzaileak ditugu. Horin begiek beren barneko nahiz kanpoko istorioak plazaratuko dizkigute; bestearengan edo beragan zirrara edo emozioaren bat sentiaraziko dute: barre txiki bat, kuriositatea, hausnarketa, kritika soziala, desadostasuna...

Bi muturrek elkarreragina dute bata bestean. Mutur bateko begiak beharrezkoak dira beste aldeari begiratzeko, amets egiteko, babesteko, ikusteko, itxaropena emateko...

Egungo gizartea plurala da, eta plurala den heinean kultur arteko diziplina desberdinen arteko loturak gero eta

**KULTURAREN
BARNEAN SOKA LUZE
BAT AURKI
DEZAKEGU. SOKA
LUZE, ZABAL ETA
AMAIGABEA**

elkartuago daudela uste dut. Soka lodi hori sortzaile gazte talde handi batez inguratzen ari da. Bi muturrak indarrez datoz, bultzada, aire fresko eta espiritu berritzaile batekin mugituz.

Dantzari, margolari, ilustratzaile, idazle, aktore, abeslari..., diziplina desberdinak elkarrekin uztartuz eta soka indartuz. Kultura sortzea da, beraz, atzera begiratzeaz ahaztu gabe, hazten jarraitzea. Diziplina desberdinak elkartzearen inertzia hori gogoko dut, guregan daramagun beldurra alde batera baztertzen uzten baitugu. Kultur espresioa handitu dezagun, sokaren partaide eraginkor izanik.

Finean, sinetsita gaude kulturaren eta diziplina artistikoen lanketa eta ezagutzak on egiten diola gizarteari. Landu ditzagun, beraz, kultura diziplina hauek gure egunerokotasunean, gure kaleetan, aretoetan, eskoletan, etxeetan, tabernetan... Eman diezaiogun behar duen lekua, behar duen garrantzia.

Eraberritzen, aldatzen, eraldatzen ari den soka honen parte izanik, jar zaitez zu ere hautsak harrotzen, nahasten, hautsak astintzen. ■■■

Memoriaren plegu batean



JUAN LUIS ROMATET

Misterio hutsa da buruak nola funtzionatzen duen. Hau idazten dudan unean zailtasunak ditut gogoratzeko aurreko asteburuan zer egin nuen, eta ez garagardo artisauari astindu handiegia eman niolako. Baina, arazorik ez dut gogoratzeko txikia nintzela, 7 bat urterekin, argizari pote bat bota nuela, nahi gabe, etxeko balkoitik. Gogoan dut amak errieta egin zidala, eta gogoan dut argizari pote haren marka ere: Glo-co. Memoriaren misterioak.

Musikarekin antzera gertatzen zait. Orain pare bat hilabete erositako disko hura –aste osoan tokadiskotik kendu ez eta behin eta berriz entzun nuena–, agian, ziur aski, arrasto handirik utzi gabe pasako zait bizitzatik. Ez zait berdina pasatzen orain 20, 25 edo 30 urte entzundakoekin. Disko haiek mekanismoren bat jartzen dute martxan burmuinean. Azala edo abestiak bakarrik ez, batzuen kasuan zer dendatan erosi nituen ere akordatzen naiz, hamarkadak pasa badira ere.

Orain hilabete batzuk gertatu zitzaidan. CDz beteta dudan tiraderetako bat ireki eta orain 15 edo 20 urte entzuten nituen euskal disko batzuk atera nituen. Diskoak irakurgailuan jartzeak zerebroko mekanismoa martxan jarri zuen automatikoki. 6nemen9 talde elgoibartarraren *Pop-atic* diskoa jarri, play botoiari eman eta burmuineko plegu batean gordetako artxiboa martxan jarri zen. “Gau ezezaguna da, arimarik ez dabil kalean” kantatzen hasi nintzen. Disko hori, agian, ez nuen entzun azken 10 urteotan, baina hasierako konpasetarako letrak buruan nituen bueltan.

Beti Mugan hondarribiarren *Oreka desorekan* diskoa jarri nuen ondoren. Hori ere auskalo zenbat urte nengoen entzun gabe. *Filosofi aldaketak* abestia heldu, eta han non nintzen ni ere estribilloa oihukatzen. “Ez gera inoiz asetuko, Jack Kerouak non ote dago?”.

Berriro gertatu zait gaur. BB Sin Sed talde kataluniarrak 20tapiko urte ondoren disko berria atera duela ikusita, bilduma arakutzen jarri eta han aurkitu ditut 1980ko hamarkada amaieran atera zituzten lehen diskoak. Gazte mukitsu bat nintzen garai hartan disko horiek behin eta berriz entzun nituen. Los Enemigos madrildarrekin batera gaztelaniaz kantatzen zuen talde gogokoena nuen. Orratza diskoaren hasieran jarri, eta abeslariarekin batera ari nintzen ni ere kantuan, orain 30 urte gazte mukitsu hark egingo zuen bezala. “Deja que arda el corazón al sol de Marzo, que golpeen fuerte las mañanas”.

Letra batzuk, abesti batzuk, disko batzuk, hain barrenean gordeta egoteak izango du beste arrazoi prosaiko bat: garai hartan diru gutxiago nuen diskoak erosteko, eta behin eta berriz entzuten nituen. Orain musika entzuteko mila eta bat aukera ditugu. Baina utz dezagun dirua alde batera, eta utz diezaiozun memoriari bereak eta bi egiten. ■■■

**DISKOAK JARTZEAK
ZEREBROKO
MEKANISMOA
MARTXAN JARRI ZUEN
AUTOMATIKOKI**



%70

... eta hobetu genezake
BIRZIKLATU



denda:
Mendaro marinela, 1
tel.: 943-14 33 46

biltegia:
Jose M^a Korta Industriegunea
Pab. A6.1, 2-5 mod.
tel.: 943-86 11 17
fax: 943-86 13 30

**industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak**



zumaiena

Haur Eskola eta Batxilergoko
MATRIKULAZIOA
MAIATZAREN 2TIK 14RA

Zumaiena beste zerbait da

